**Lo primero nuestra salud**

**LANGILEAK BABESTU, EZ KAPITALA**



# LANGILEAK BABESTU, EZ KAPITALA DEMOKRAZIA EUSKAL HERRIARENTZAT

## LABen aldarrikapen taula COVID19 Pandemiaren aurrean

**1. EUSKAL HERRIA GUTXIENEKO ZERBITZUETAN.** Konfinamendua ezarrita dagoen bitartean, Euskal Herria gutxieneko zerbitzuetan jarri, ez baitu zentzurik herritarrak etxean ixtea eta bitartean lantegiak martxan jarraitzeak. Oinarrizkoak ez diren zerbitzuak etetea ezinbestekoa da langileen lan osasuna bermatzeko eta pandemiaren hedapena geratzeko. Oinarrizko zerbitzuak mantendu (osasuna, elikadura, garbiketa, helduen zaintza, zerbitzu sozialak, energia eta ura, garraio publikoa), ahal den esparruetan telelana ezarri eta bestelako ekonomia jarduerak eten. Oinarrizko zerbitzuetan diharduten langile denei segurtasun neurri guzti-guztiak ziurtatu behar zaizkie.

**2. SOLDATAK %100 BERMATUAK.** Gutxieneko zerbitzuetan ez dauden nahiz telelana egin ezin duten langile guztientzat (izan soldatapeko, etxeko langile edo autonomo) soldataren %100 bermatuko duen lizentzia orokorra. Lizentzia hau ezin da egon enpresa bakoitzaren borondatearen esku, sektore prekarizatuenak babesgabe uztea suposatuko lukeeko; administrazioak hartu beharreko neurri orokorra da. Neurri hori Patronalak finantzatu behar du, zuzenean ala zerga bidez. Krisia Kapitalak ordain dezala.

**3. OSASUN SISTEMA PUBLIKOA INDARTU.** Osasungintza pribatuko baliabide guztiak osasun sistema publikoaren menpe jarri, ez soilik hitzez baizik eta ekintzez. Eta aurrera begira, osasun sistema publikoa eta oro har zerbitzu publikoak indartzeko apustu estrategikoa egin.

**4. ZAINTZA MAHAIA ETA SAREAK.** Euskal Herriko mugimendu feministak egindako proposamenari jarraiki, parte hartze soziala eta sindikala izango duen Zaintza Koordinatzeko Mahai bana eratu EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herrian. Herriz herri antolatzen ari diren zaintza sareak babestu. Zaintzaz arduratzen diren zerbitzu publikoak indartu. Zaintza lanak bermatzeko %100 ordaindutako lizentziak.

**5. PREBENTZIOA LANTOKIETAN.** Osalan eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak enpresa guztiek bete beharreko prebentzio neurrien zerrenda zehatza argitaratu eta betearazi behar dute. Hori egin ezean, Sindikatuak lantokiz lantoki egingo du interpelazioa. Prebentzio neurriak ezin dira lanean izan beste esparruetan baino txikiagoak. Eta hala balitz, sindikatuak bere bitarteko juridiko eta sindikal guztiak erabiliko ditu planto egin eta enpresaren jarduera gelditzeko.

**6. ERTE ETA BAJAK %100 ORDAINDUAK.** Enpresa batek ERTErik ezarriko balu, soldataren %100 bermatu diezaiela langile guztiei, bai enpresa nagusikoei nahiz azpikontratei. Arrisku taldeko langileak, gaixotutakoak nahiz protokoloaren arabera isolatu beharrekoak etxera bidali %100eko soldatarekin.

**7. LAN ESKUBIDEEN AURKAKO ERASORIK EZ.** Pandemiaren aitzakian langileon eskubideen kontrako erasorik ez. ERE eta kaleratzeak legez debekatu. Edozein laguntza publikok enplegua mantentzeko baldintza jaso behar du. Opor behartuak, lanaldi murrizketa inposatuak eta bestelako iruzur kasuei aurre egin.

**8. RGI EXPRES.** Sabuespen egoera iraun bitartean, prestazioak jasotzen dituzten herritar guztiei prestazioak automatikoki luzatu. Diru iturririk ez duten nahiz langabezia eskubiderik ez duten guztiei "RGI expres" baterako bidea ireki.

**9. EGOERA ZAURGARRIAN DAUDENAK BABESTU.** Salbuespen egoerak iraun bitartean hipoteka, alokairu, zerga, ura nahiz argindarraren ordainketatik aske utzi egoera ekonomiko zaurgarrian dauden herritarrei. Etxegabetzeen gaineko moratoria. Etxerik ez duten herritarrentzat aterpe eta jantokiak martxan jarri, beharrezko segurtasun neurriekin. Indarkeria matxista pairatutako emakumeentzat babesguneak bermatu. Arrisku taldean diren euskal presoak berehala etxeratu.

**10. DEMOKRAZIA EUSKAL HERRIARENTZAT.** Ezkutuko 155ari ez: bertako instituzioek eta herritarrok izan behar dugu krisi hau nola kudeatu erabakitzeko eskubidea. Osasun larrialdia baliatuz estatu eredu autoritario, polizial eta militarizatuaren ezarpenari aurre egin. Haurren eskubideak bermatzeko neurriak. Migranteen kanporatzeari ez. Larrialdi egoeraren aitzakian Mozal Lege berriturik ez. Bildu, antolatu eta mobilizatzeko eskubidea, beharrezko segurtasun neurriak bermatuta. Herritarren informazio, antolaketa eta parte hartzerako bideak ireki.

LAB

#BizitzarenAlde #Planto #KapitalakOrdainDezala

Lo primero nuestra salud

LANGILEAK BABESTU, EZ KAPITALA

# PROTEJAMOS A LA CLASE TRABAJADORA, NO AL CAPITAL

# DEMOCRACIA PARA EUSKAL HERRIA

## Tabla reivindicativa de LAB ante la Pandemia del COVID19

**1. EUSKAL HERRIA EN SERVICIOS MÍNIMOS.** Euskal Herria tiene que declararse en servicios mínimos mientras dure el confinamiento. Es indispensable paralizar todos los servicios no esenciales para garantizar la salud laboral de las y los trabajadores y parar la extensión de la pandemia. Hay que garantizar los servicios mínimos (sanidad, alimentación, producción agrícola y venta directa, limpieza, cuidados en general y el cuidado de las personas mayores en particular, servicios sociales, energía y agua, transporte público), implantar el teletrabajo en todos los ámbitos posibles y paralizar toda la actividad económica restante. Todas las y los trabajadores que siguen trabajando en servicios mínimos deben tener garantizadas todas las medidas de seguridad necesarias.

**2. GARANTIZAR EL 100% DE LOS SALARIOS.** Licencia general que garantice al 100% los salarios de todas las personas trabajadoras que no se encuentren en servicios mínimos y tampoco puedan desarrollar el teletrabajo (sean asalariadas, trabajadoras del hogar, riders o autónomos). Dicha licencia no puede depender de la buena voluntad de cada empresa, esto supondría dejar sin cobertura a los sectores más precarios; se trata de una medida general que tiene que adoptar la administración y financiar la patronal, por vía directa o vía fiscal. Esta crisis que la pague el Capital.

**3. REFORZAR EL SISTEMA PÚBLICO DE SALUD Y CUIDAR LA SALUD DE TODA LA CIUDADANÍA.** Socializar todos los recursos de la sanidad privada y ponerlas a disposición del sistema público de salud, sin ninguna contraprestación económica. Incrementar la atención sanitaria hacia los grupos de riesgo (personas enfermas crónicas, con disfunciones respiratorias, mayores, pensionistas). Hacer una apuesta estratégica de futuro en defensa del sistema público de salud y, en general, todos los servicios públicos, con el objeto de reforzarlas.

**4. MESA Y REDES DE CUIDADOS.** En la línea de la propuesta realizada por el movimiento feminista de Euskal Herria, crear una mesa de Coordionación de Cuidados en cada territorio, CAV, Nafarroa e Ipar Euskal Herria, que contará con la participación social y sindical. Proteger e impulsar institucionalmente las redes de cuidados que se están organizando pueblo a pueblo. Reforzar los servicios públicos dedicados a los cuidados. Licencias retribuidas al 100% para garantizar los trabajados de cuidados. Realizar una planificación específica dirigida a la atención y el cuidado de las personas mayores y pensionistas.

**5. PREVENCIÓN EN LOS CENTROS DE TRABAJO.** Osalan y El Instituto Navarro de Salud Laboral y Salud Publica deben publicar y hacer que se garantiza el cumplimiento de la lista concreta de medidas de prevención por parte de todas las empresas. De lo contrario, el sindicato interpelará centro por centro, y ante el incumplimiento de las medidas de prevención más fundamentales, impulsará el "planto" entre las y los trabajadores. Y para ello utilizará todos los medios jurídicos y sindicales a su alcance para paralizar la actividad de la empresa.

**6. ERTEs y BAJAS RETRIBUIDAS AL 100%.** En caso de que una empresa aplique un ERTE, deberá garantizar el 100% del salario a todas y todos sus trabajadores; tanto de la empresa matriz como de las subcontratas. A las personas autónomas que han suspendido su actividad también se les tiene que garantizar un ingreso económico y reconocer el derecho al desempleo. A las y los trabajadores pertenecientes a grupos de riesgo, a quienes hayan contraído la enfermedad o tengan que ser aisladas según el protocolo, hay que mandarles a casa, complementando las bajas hasta el 100% de sus salarios.

**7. LOS DERECHOS LABORALES NO SE TOCAN.** No permitiremos ningún ataque contra los derechos laborales que se pueda realizar con la excusa de la pandemia. Hay que prohibir legalmente los EREs y los despidos y blindar las pensiones. Toda ayuda pública debe contemplar requisitos para el mantenimiento del empleo. Es necesario hacer frente a la imposición de vacaciones y reducciones de jornada, modificaciones de horario o ampliaciones de jornada, y a todos los casos de fraude.

**8. RGI EXPRES.** Prolongar automáticamente la prestación a todas las personas perceptoras de la RGI, mientras se mantenga el estado de excepción. Abrir la posibilidad de una "RGI expres" ("RG expres" en Nafarroa) para todas aquellas personas que estén obligadas a trabajar en la economía sumergida, que no tengan acceso al desempleo o, en general, no cuenten con ningún otro ingreso. De alargarse la situación, revisar el sistema de protección para garantizar a toda la ciudadanía una renta básica digna, en los parámetros de la ILP impulsada por la Carta Social.

**9. PROTEGER A LAS PERSONAS EN SITUACIÓN DE VULNERABILIDAD.** Que las personas en situación de vulnerabilidad queden libres de pagar hipotecas, alquileres, impuestos, recibos de agua, gas y electricidad, mientras esté en vigor el estado de excepción. Poner en marcha, de urgencia, un servicio de distribución de alimentos, comedores y albergues, con las medidas de seguridad necesarias. Garantizar espacios de protección a las mujeres que hayan sufrido o sufren violencia machista. Garantizar los papeles a las personas en situación irregular (regularización extraordinaria); todos los derechos para todas las personas. Vuelta a casa inminente de todos los presos y presas vascas que formen parte del grupo de riesgo.

**10. DEMOCRACIA PARA EUSKAL HERRIA.** No al 155 encubierto: nuestras instituciones, así como la ciudadanía, tenemos que tener el d erecho a decidir cómo gestionar esta crisis. Hay que hacer frente a la imposición del modelo de estado autoritario, policial y militarizado que se nos ha impuesto con la excusa de la emergencia sanitaria. Medidas para garantizar los derechos de los y las niñas. No a una ley mordaza renovada con la excusa del estado de emergencia. Abrir a la ciudadanía canales de información, organización y participación, tanto en esta situación de excepcionalidad como en la gestión posterior. Es aquí, en Euskal Herria, donde tenemos que decidir; que no lo hagan en nuestro nombre las estructuras de Estado de España y Francia al servicio del capital.

LAB

#BizitzarenAlde #Planto #KapitalakOrdainDezala